

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide, Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, “**ekonomia gaietarako sortu nahi duen aholku batzordeari**” buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

ZIOA

Urtarrilaren 19an argitaratutako albiste baten arabera, Lehendakaritzak asmoa dauka ekonomia gaietan adituak diren aholkularien batzordea osatzeko. Ez dugu ulertzen zertara datorren era horretako ekimena. Izan ere, urtarrilaren 12an Gobernu kontseiluak onartu zuen Lehendakaritzaren egitura dekretutik desagertu egin baitzen ekonomia gaietarako idazkaritza; hain justu, aurrekontu proiektuaren aurkezpenean, Lehendakaritzaren aurrekontuaren azalpenak ematek orduan iragarri zuten idazkaritzetako bat.

Bestalde, urtarrilaren 14an, Lehendakaritzan gobernuko goi kargudunen aurrean, Lehendakariak ‘gizartearekin sinatzeko asmo duen hitzarmen berria’ aurkeztu zuen. Eta, hala ere, bere herri proiektua, ez politikoa, ezta ekonomikoa, zein den ezagutu gabe segitzen dugu. Hori dela eta, ezinbestekoa deritzogu Legebiltzarrari azaltzea aholku batzorde horren aurrekontua, funtzionamendua eta helburua zein den eta zerikusirik dagoen Lehendakaritzaren egitura dekretuak izandako aldatetarekin.

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

INTERPELAZIOA

Azal dezan zein den eta izango den bere politika ekonomikoa eta, batez ere, zein izango diren ekonomia gaietarako aholku batzordearen helburua, egitekoa, funtzionamendua eta aurrekontua.

Gasteizen, 20010eko urtarrilaren 20an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea